

Elkarrekin ikasten, bata bestearekin. Ikaskuntza-Zerbitzua Congr s Indians auzoan.



Ikastetxea eta tokia:

**Arrels ikastetxea eta Sants
Innocents hezkuntza
bereziko zentroas**

Congr s Indians auzoa,
Sant Andreu barrutia, Bartzelona.

Gauzatze-data:

2018-2019 ikasturtea.

Harremanetarako pertsonak:

Pilar Cuesta eta Carol Luj n.

Harremanetarako emailak:

cuestap@escola-arrels.cat y
clujan@xtec.cat

**Ikastetxearen, hezkuntza-mailaren eta
ikasleen profilaren testuingurua:**

2017an, Congr s Indians auzoan, Familien Errenta Eskuragarriaren indizea, Bartzelonako batezbestekoarekin alderatuta, 70,lekoa izan da. Kontuan izan behar da, halaber, Sant Andreu barrutiak Bartzelonako *per capita* errentarik baxuena duela, eta barruti horretako auzo guztiak hiriko batezbestekoaren oso azpitik daudela.

Bestalde, biztanleen ikasketa-mailari dagokionez, zera ikus daiteke: 2017 eta 2018 artean puntu bat egin duela behera ikasketarik ez duten edo lehen mailako ikasketak soilik dituzten pertsonen ehunekoak (% 24,4tik % 23,25 izatera), eta puntu bat gora, berriz, unibertsitate-ikasketak dituzten pertsonen ehunekoak (% 21,8tik % 22,8 izatera).



Auzoko biztanleen zahartze-tasa askoz ere handiagoa da hiriko batezbestekoa baino (biztanleen % 23,3). Biztanle-talde horren % 30 baino gehiago bakarrik bizi da.

Atzerriar jatorriko pertsonen ehunekoa batezbestekoa baino txikiagoa da, eta txinatar eta boliviarr jatorrikoak nabarmentzen dira bertan.

Testuinguru eta baldintza nagusi horiek bultzatu gintuzten, duela 5 urte, auzoari buruzko proiektu bat egitera. Proiektu horrek elkarrekiko lotura txikia zuten pertsonen arteko harremanak sortzea eta erraztea zuen jomuga: auzoko adineko pertsonen, DBHko 4. mailako ikasleen, eta hezkuntza-premia bereziak zituzten ikasleen artekoak.

Esperientzia horretan 2 ikastetxek parte hartu zuten, Arrels ikastetxeak eta Sants Inocents hezkuntza bereziko zentroak, baita La Palmera eta Congr s Indians zaharren egoitzek ere. Prozesu hori InteRed Catalunya GKEaren aholkularitza eta lankidetzarekin egin zen. Proiektu horretan parte hartu zuten: 80 ikaslek, 12 irakaslek, egoitzetako 27 adineko pertsonak, 3 teknikarik eta 3 boluntariok.

Esperientziari buruzko azalpen laburra

Proiektua zertan zetzan

Egungo biztanleen arteko harreman faltak bultzatu gintuen proiektu hori egitera, bereziki zenbait gizatalderen arteko harreman faltak: gazteen, adineko pertsonen eta hezkuntza-premia bereziak dituzten gazteen artekoak, hain zuzen. Egungo gizartean indibidualismoa biziki gorestea da horren guztiaren eragilea; izan ere, biztanle-taldeek beren buruan baino ez dute jartzen arreta, eta ez zaie garrantzirik ematen premia gehien dituzten pertsonen.

Lotura falta hori proiektuaren erronkatzat harturik, Ikaskuntza-Zerbitzu (ApS) honen jomuga nagusia auzoan gizarte-kohesiorako guneak sortzen laguntzea izan zen; gizatalde oso desberdinen arteko hurbilketa sustatu, eta, horrela, askotariko kolektiboen arteko loturak sortzea. Ikaskuntza-proiektu honek, hain



zuzen, DBHko 4. mailako ikasle-talde baten eta bi gizatalde zaurgarriren arteko harremana sortu zuen. Adineko pertsonen taldea da gizatalde horietako bat. Izan ere, bakardadea jasateaz gain, beren bizi-esperientziei ez zaie garrantzirik ematen, ikusezin bihurtu ohi dira, eta balio gutxi ematen zaie. Bestalde, aniztasun funtzionalaren ondorioz gizarteratzeko arazoak dituzten pertsonen osatzen zuten beste gizataldea. Proiektu honen bi norabideko printzipioaren bidez, mugak hautsi eta hainbat gizatalderen bizi-esperientziei garrantzia eman ahal izan genien, guztiak baitira balio handikoak eta ekarpen bat egiteko modukoak.

Esperientzian Ikaskuntza-Zerbitzuko metodologia bat erabili zen, eskuratutako ezagutzen eta gizarte-konpromisoaren arteko lotura errazteko. Horri esker, proiektuarekin gizarte-hezkuntzako prozesu oso bat egin ahal izan zen. Bartzelonako Congr s Indians auzoko gizarte-kohesioa errazte aldera, tokiko garapenerako ekarpen solidarioak eta parte hartzeko konpromisoa curriculumarekin lotzea hartu zen ikuspegi pedagogikotzat, eta, hala, hezkuntza-kalitatea pixkanaka hobetu ahal izan zen.

Zer lortu nahi genuen?



Hezkuntza-proiektuak zenbait helburu argi zituen:

- Auzoko bizilagunek gizarte-desberdintasunen eta gizarte-bazterkeriaren egiturazko arrazoiei buruzko ezagutza zabalagoa izatea.
- Bai auzoko gizataldeen gizarteratzea erraztea eta bai elkarren arteko harremanak erraztea, hori eragozten zuen jarrera eta portaera oro aldatuz.
- Herritarrak bultzatzea bai kritikoak, arduratsuak eta solidarioak izatera eta bai giza eskubideen aldeko ekintza aktiboak egitera, parte hartu duten gizataldeen artean partekatutako ezagutzak kontuan hartuz.
- Gazteek inplikazio handiagoa izatea ondasun komunen zaintzan, kontsumo arduratsuan eta ingurumenean, ikastetxeko hiri-baratzearen bidez.
- Nekazaritza ekologikoaren erabilera eta ohiturak berreskuratzea, eta laborantzarako eta kontsumorako bide berriak aztertzea.

Zer eta nola egin genuen?

Esperientzia hori hiru etapatan egin genuen: lehenengoan, irakasleen plangintza eta aholkularitzari ekin genion; bigarreanean, ikaskuntzari; eta hirugarreanean, zerbitzuari. Azken faseak sendotu zuen, bereziki, protagonisten arteko lotura. Horretarako, bi norabideko metodologia aktiboak eta belaunaldien eta kulturen arteko dinamika parte-hartzaileak egin ziren.

- **Plangintza-, jarraipen- eta ebaluazio-fasea.** Plangintzarako ezinbestekoa izan zen bertan parte hartuko zuten pertsonen proiektua zer zen eta ikaskuntza-zerbitzua zertan zetzan erakustea. Fase horretan, nabarmendu behar da erabakiak askoren artean hartu zirela, eta esperientziaren etengabeko jarraipen eta ebaluazioa egin zela. Ikasleen parte-hartzeak eta iritziak ere oso kontuan hartu ziren, haiek baitziren zenbait zerbitzuren protagonistak.
- **Ikaskuntza-fasea.** Etapa horretan, ikasleek zenbait ezagutza lortu eta garatu zituzten, bizitzaren zaintzari, ingurumenari, parte hartzeari eta generoari buruzko ikasgaien programa baliatuz. Halaber, auzoaren beharrei buruzko ezagutzak ere lortu zituzten, arreta berezia jarrita pertsona zaurgarriei (adineko pertsonen, etorkinei eta aniztasun funtzionala duten pertsonen) eta kolektibo horien memoria historikoari. Matematikako ikasgaien gai horietakoren bati buruzko ikerketak eta azterketa analitikoak egin ziren, ikaskuntzaren atal gisa.
- **Zerbitzu-fasea.** En Bertan, zerbitzua gauzatzeko bi norabideko metodologia bat erabili zen, DBHko 4. mailako ikasleen, adineko pertsonen eta aniztasun funtzionala zuten pertsonen artean. Zerbitzu-faseak 4 saio izan zituen talde bakoitzeko, gehi aurkezpen-saio bat.

Sants Innocents hezkuntza bereziko zentroko ikasleekin baratzea zaintzearekin lotutako jarduerak egin ziren. Ikasle horiek, gainera, edizio informatikoko programei buruzko prestakuntza jaso zuten eta parte hartu zuten Arrels ikastetxean. Ikastetxe bateko eta besteko ikasleekin egindako saio partekatuetan balioak landu ziren, hala nola aniztasunaren onarpena, norberaren gaitasunen garapena, gizarte-trebetasunak, errespetua, laguntza, enpatia, lankidetzak, solidaritatea, gizarteratzea, naturarekiko errespetua eta ingurua zaintzeko ardura.

La Palmera eta Congr s Indians egoitzetan zenbait saio egin ziren, belaunaldien arteko hartu-emana, errespetua, laguntza, enpatia eta lan-



kidetza lantzeko, eta horretarako, jokoak, dantza, sukaldaritza, telefono mugikorretako aplikazioak eta memoria historikoa erabili ziren. Jarduera horien bidez, bi belaunaldi-errealitatearen arteko zubiak eraiki ahal izan ziren, eta elkarren arteko harremanak estutu, berariazko eta antolatutako esperientzien bidez, eta inplikaturako pertsona guztien parte-hartzearekin.

Azkenik, itxiera-ekitaldi bat egin zen, ospakizun bat, esperientzia horren partaide izandako pertsona guztien arteko topaketa bat. Izan ere, esperientzia horretan, bakoitzak ikasitakoa besteekin partekatu zuen, eta bizilaguntzat hartu zuten elkar.

Zer lortu dugu?

Jarrerak eta portaerak aldatzea lortu da, zenbait balioen alde, hala nola desberdintasunei buruzko sentsibilizazioaren eta gizarte-aniztasunaren alde. Balio horiek proiektuaren hainbat fasetan ikusi ahal izan dira, eta parte hartu dutenen mobilizazioa bultzatu dute. Zerbitzu-proposamenak gizabanakoen hartu-emanan sustatu du, eta, era berean, baita urraketen aurkako borroka arduratsua eta gizatalde guztien ahalduntzea ere, beren parte-hartzeko eskubideak bermatu ahal izan ditzaten.

Ikasleen gizarte-gaitasunak garatu ahal izan dira, eta irakasleek datorren ikasturterako beste Ikaskuntza-Zerbitzuko proiektu bat abiarazteko konpromisoa hartzea lortu da.

Proiektuan parte hartu duten eragile nagusiek elkarren arteko harremana dute komunitatean. Horri esker sortutako loturek erraztu egingo dute gerora jarduera eta proposamen berriak egitea.

Parte hartu duten ikasleek baieztatu dutenez, bizipen arras aberasgarria izan da adineko pertsonak parte hartzen, ikasten eta beren balio pertsonalak partekatzen ikustea. Gazteek asko ikasi dute, baita ahalegin handia egin ere, hasiera batean uste zutena baino handiagoa. Horrela dio Arrels ikastetxeko ikasleetako batek: "Adina ez da zenbaki bat besterik. Askok ikasi dut, eta kontuan hartzen hasi naiz adineko pertsonetako loturak nik uste baino estuagoak direla".

Azkenik, esperientzia honen partaide izan diren gizataldeei buruzko estereotipoak baztertu ahal izan ditugu, batzuen eta besteen errealitateak elkarri hurbilduz.



Ikastetxe-egiturako eta testuinguruko zer elementuk lagundu digute helburuok betetzen?

Ikaskuntza-Zerbitzuko eragile protagonisten artean harreman ona izateak. Izan ere, esku-hartzearen plangintza, koordinazioa eta jarraipena erraztu dute.

Zentro zibikoen eta zaharren egoitzen ordutegiak ez datoz bat ikastetxeen ordutegiekin. Bien ordutegiak bat etortzea nekeza izan den arren, batzuen nahiz besteen ordutegiak aldatuz, irtenbidea eman ahal izan zaio.

Oso lagungarria izan da eragile parte-hartzaileen alde aurretiko jarrera egokia, baita haien egokitzeko gaitasuna ere, egoerak hala eskatu duenean.

Zer ikaskuntza lortu ditugu eta zer erronka ditugu?

Honako ikaskuntza hauek nabarmendu ditzakegu:

- Garrantzia handikoa da, ikaskuntza-fasean, irakasleak inplikatura egotea eta ikuspegiez eta edukiez jabetzea.
- Ikaskuntza-Zerbitzuaren eragina biderkatu egin daiteke irakasleek prozesuan zehar laguntzen badute eta curriculumeko edukiak eta zerbitzu-faseko esperientziak lotzen badira.
- Proiektua gauzatzeko duten pertsonen protagonismo handiagoa eman behar zaie Ikaskuntza-Zerbitzuko proposamena eratzean.
- Irakasleek eta lantalde teknikoak proiektuaren komunikazioa eta motibazioa bultzatzeko egindako lana oso garrantzitsua izan da.

Erronka berri hauek hauteman ditugu:

- Ikastetxeko gainerako kideak sentsibilizatzeko ekintzetan inplikatzeko irakasleak.
- Ezagutzazko eta jakintzazko giro bat sortzen lagunduko duten dinamikak bultzatzea, ludopedagogia txertatuz.
- Herritartasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzailearen ikuspegia geure egitea.



Esperientzia prestatzen eta gauzatzen esku hartu duten pertsonek edo erakundeak:



Hasteko, hezkuntza-esparruan, bi ikastetxek parte hartu dute. Batetik, Arrels ikastetxeko 6 irakaslek, irakasle koordinatzaile batek eta DBHko 4. mailako 60 gaztek parte hartu dute; bestetik, Sants Innocents hezkuntza bereziko zentroko 4 irakaslek, irakasle koordinatzaile batek eta 20 ikaslek.

Ondoren, udal-guneei dagokienez, bi zaharren egoitza izan dira parte hartzen. Congrés Indians zaharren egoitzako pertsona koordinatzaile bat eta 14 adineko pertsona joan dira programatutako jardueretara, eta La Pamera zaharren egoitzako pertsona koordinatzaile bat eta 13 adineko pertsona.

Azkenik, InteRed Catalunyako 2 dinamizatzaile-teknikariek eta 3 boluntariok esku hartu dute, esperientziaren hainbat etapatan.

Baliabide edo material lagungarria/ erreferent- ziazkoa:



Esperientziaren bideoa:

<https://www.youtube.com/watch?v=sb5bGoX-zyl>

Material fotografikoa:

Rubio, Laura i Lucchetti, Laura (2016). *APS pau, drets humans i solidaritat. Noves propostes d'educació per a la justícia global*. Barcelona. Fundació Jaume Bofill. Centre Promotor d'Aprenentatge Servei. www.aprenentatgeservei.org

Hezkuntza-baliabidea:

<https://kahoot.com/>